



Hiperaktibitatea hautemateko gakoak aztertzen.- Arreta Faltaren Nahasmenduari eta Hiperaktibitateari buruzko hitzaldia eman zuen ADAHIGI elkarteak asteazkenean Manuel Lekuona kultur etxean. Gehienbat, gurasoei zuzendutakoa zen. Izan ere, "gaitza" identifikatzeko gakoak eta faktoreak aztertu zituzten. Lehenik eta behin, arazo fisikoak baztertu behar direla nabarmendu zuen ADAHIGI elkarteko kideak. Haurrak entzuten ez duela dirudienean, arreta falta erakusten duenean, xehetasunei erreparatzen ez dienean edota eguneroko ohiturak eta errutinak ahazten dituenean kezkatu beharko dira gurasoak. Halere, azpimarratu beharra dago "errua" ez dutela gurasoek ez umeei, jaiotzeko den arazoa baita. Halaber, azpimarratu zuten Arreta Faltaren Nahasmendua eta Hiperaktibitatea ez daudela gaindiagnostikatuak. Haurren %5ek pairatzen dituzte, eta "gure ikasgeletan zifra horietara ez gara iristen". Hezkuntzak joka dezakeen papera aztertu zuten. Ez du gaitza sortuko edo desagerraraziko, baina egunerokotasunean efektu negatiboak txikiagotu ditzake.

3 GARAJEAK

Onartuen behin-behineko zerrenda eskuragarri

Lasarte-Oriako Udalak errentan edo kontzesio administrati- boan esleituko dituen garaje-plazak banatzeko erabi- liko duen behin-behineko zerrenda argitaratu du. Uda- lean, Udaleko webgunean eta Maite Betelu administrazio-ko webgunean dago ikusgai. Erre- klamaziorik egin nahi duenak martxoaren 3ra arte du epea.

4 ERRIGORA

Nafarroako oliba olio birjina Errigoraren eskutik

Aurten ere, Errigora ekimen-eko lagunek oliba olio birjina- ren kanpaina jarri dute martxan. Aurten Nafarroa Erriberako lau ekoizle ezber- dinetako olioak eskuratu ahal- ko da, bai ekologikoa, baita konbentzionala ere. Lasar- te-Orian hainbat lekutan egin daiteke eskaera, baita Errigo- raren webgunean ere.

5 30. URTEURRENA

Lasarte-Oria udalerraren eraketa ospatuz

Astlehenean, Lasarte-Oria udalerrri bilakatu zeneko 30. urteurrena ospatu zen. Lasar- te-Oriako Udalak hiru ekintza burutu zituen: lehen udalbat- zarra egin zen Ama Brigitaren kaperan meza, udalbatzar are- toan lehen batzar horretako aktaren irakurketa eta Lasar- te-Oriako banderaren igoera udaletxe zaharreko balkoian.



Josue Igeltseritza

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak Barruko berrikuntzak

Estalkien berriztatzeak Gremioen koordinaketa

606 37 21 05
Atallu pol. atallu, 28
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

NOAOA BIDAIAK
BIDAIATZEN LAGUNTZEN DU

GREZIETAKO IRLETARA KRUZEROA

IRTEERA: 2016ko irailaren 12an
Lasartetik

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA
943 373 613
info@noaoabidaia.com

eskeintza gehiago: www.noaoabidaia.com
HIPODROMO ETORBIDEA 10 - 20160 LASARTE-ORIA, GIPUZKOA

Neure kabuz



Maider Segurola

Hau mundua

Aspaldi xamarretik konturatuta gaude urtaroak aldrebesten ari zaizkigula. Aurten behintzat udazkenak gutxi izan du udazkenetik eta gainera, berez dagokiona baino denbora gehiagoan luzatu zaigu, neguari erabat esnatzen utzi gabe. Azkenean bai, azkenean negua ere iritsi zaigu baina egutegian azkenetan behar lukeen ia. Hau mundua.

Seguruenik gurea izango da natura aldrebesten aritzearen errua baino bueltan bueltan, honek berak gu gehiago korapilatzen gaituen sententzia daukat. Gabonetako argiak urtarrila amaierara arte eraikin eta zuhaitzetan zintzilik ikusi ditugu; zergatik ez da jartzeko besteko presarik izaten apaingarriak jasotzeko? Ilargiaren kapritxo, Santa Ageda eta Inauteriak parean tokatu dira aurten eta hori gutxi balitz, Inauteriak amaitu eta oraindik ajea gainean genuela, aste horretan bertan hurrengo urteko mozorro ideia eske Udaleko txartela buzoian... ez al dugu 2016 dontsu hau patxadaz gozatzeko modurik izango?

Eta adi, aurten otsailak 29 egun ditu eta. Hau mundua.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Garaje itxia alokatzen da Andatza plazako sarreran, Sasoeta paseoa. Bi kotxerentzako lekua eta garbitokia. 125 euro hilabetean. Marianengatik galdetu, 685 78 08 57.
- Garaje marraduna alokatzen dut Eusko Tren geltokitik gertu. 11 metro karratu. Harremanetarako: 687 27 12 88.

Salerosketa

- Emaztegaia eta almirantearen jantzi bana jaunartzeetarako. Merke. 943 37 00 92
- Bizkien karroa saltzen da. Easy Walker

Zorion agurrak




Maddi

Zorionak printzesa maitea!!! Mila muxu eta ondo pasa zure 6. urtebetetzea!!! Zure aita, ama, anaia, familia eta lagunak partetik...muak, muak, muak!



Raul

Zorionak aitaxo maitea, milaka muxu potolo munduko aitaxo onena eta Maiteren partez. zarelako. Amaur, Ekain eta amatxo.



Richard

Zorionak zure osaben, Imanol eta Itziar, Pablo eta Maiteren partez. Disfrutatu eguna. Muxu handi bat.



Andrea

Zorionak eta 15 muxu pottolo zure urtebetetzean, etxekoan partez. Ondo ospatu.



Jonpe

Zorionak Kallus Pellus! 25 urte ya... Zahartzen aiegea! Merezki bezela ospatu ta muxu goxo bat denon partetik!



Uxue

Zorionak maitea! Oso ondo pasa zure 7. urtebetetzean! Muxu handi bat zure familiaren partetik.



M. Jose eta Garoa

Argazkiko bi neskatilek urteak beteko dituzte laister. Batek 6 beteko ditu, ta besteak 63. Ezetz asmatu zein den amona ta zein biloba!



Alain

Zorionak Alain!!!! Zure bigarren urtebetetzean, txokolatetzko muxu asko famili guztien partetik. Muak



Claudia

Zorionak! Ondo pasa eta 6 muxu potolo etxeko guztien partetik!



Bea

Zorionak Bea! Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu erraldoi bat lagunak partetik!!!!!!

Heriotzak

Heriotzak

- Maria Carretero Castro, otsailaren 14an, 83 urte zituela.
- Maria Pilar Garcia Cuesta, otsailaren 11an, 74 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 19	
Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 20	
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 21	
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 22	
De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 23	
Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 24	
Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 25	
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Eloegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Martin Vicioso, Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

GARAJE-PLAZAK



Okendo plazan 124 marra dira esleitu direnak. Horietatik 106 alokairuan eskainiko dira eta 18 kontzesioan.

Garaje-plazen behin-behineko zerrenda

Martxoaren 3a arte egin ahalko dira erreklamazioak

Lasarte-Oriako Udalak bere jabetzako 149 garaje-plaza errentan edo kontzesio administratiboko erregimenean esleitzeko prozesuraren pauso berria eman da: onartu diren eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu da. Hamabost egunez egongo da eskuragarri. Kexarik duten herritarrek martxoaren 3a arte dute haien erreklamazioa egiteko.

TXINTXARRI

Udalaren jabetzako garaje-plazen eskaintza jarraiturako prozeduran eta haiek errentamenduko edo kontzesio demanialeko erregimenean adjudikatze baldintzetan parte hartzeko eskatzaile onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak argitaratu dira.

Udalan edo webguneetan

Udalak jakitera eman duenez, zerrenda Lasarte-Oriako Udaleko Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko Departamentuan dagoen iragarki-taulan dago ikusgai.

Informazio hori bera Udalaren web orrien bitartez www.lasarte-oria.eus edo Maite Betelu Administrazioaren web orrien bitartez www.mbetelu.com ere kontsultatu ahal da.

Aipatutako zerrenda hamabost egunez egongo da herritarren eskura.

Erreklamazioa

Epe horretan onartuek edo baztertuak izan diren herritarrek informazioa eskatu eta erreklamazioak egin ahalko dituzte.

Epe berean, desgaituei erreserbatutako garaje-plazetako batera hautatu nahi duten onartuek, Minusbaliotasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Kexak eta ziurtagiriak Maite Betelu Administrazioan aurkeztu behar dira. Azken eguna martxoaren 3a da.

Burunzpe, esperientziak partekatzen

Astelehenean, Sasoeta-Zu-Amaburu ikastetxeko Burunzpe guraso elkarteak Errenteriako Koldo Mitxelena ikastetxeko guraso elkarte eta BAIKARA Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazio Garbiñe Arrizabalagaren bisita jaso zuen.

Lasarte-Oriako ikastetxeak kulturartekotasun arloan egiten duen lana ezagutzera etorri ziren bisitariak eta horretarako, besteak beste, Multikulturala batzordeko kideekin bildu ziren.

Erreferentea

Batzordeak urte batzuk darmatza kulturantzitasuna eta kultura arteko bizikidetzaren eta beste eskoletarako erreferente da.

Horren erakusle da 2012



Burunzpe elkarteak, Koldo Mitxelena ikastolako eta BAIKARAko ordezkaria. BURUNZPE

eta 2014 urteetan, guraso elkarteak eskuratu duen Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak erkidego mailan antolatzen duen Guraso Elkartearen hezkuntza-jarduera onen saria.

Elkarteak hainbat ekintza egiten ditu ikastetxean dagoen kulturen arteko bizikidetzaren sustatzeko, Aniztasun aste horien artean eta guraso eta haurren harrera oso ona da.

UDABERRI ELKARTEA

Bazkide eta laguntzat barrikotea

Udaberri Andantza elkarteak martxoaren 4an barrikotea antolatu du. Parte hartu nahi duena jar dadila elkartearekin harremanetan. Elkarteko kideek aipatu dutenez, bazkide eta hauen lagunei zuzendutako ekintza da.



IRAKURLE TXOKOA

Harremanak eta gatazkak aztertzen

Hileroko hitzorduari eutsiz, asteartean, Irakurle txokoko lagunak bildu ziren Manuel Lekuona kultur etxean. Danele Sarrigarteren laguntzaz, Katixa Agirrerren 'Atertu arte itxaron' lana aztertu zuten. Pertsonaia nagusiaren famili harremanak, bikote harremana, Euskal Herriarekiko sentimendu kontra-jariak... hainbat gai jorratu ziren saioan.

Bestalde, otsailaren 27an ostirala gaueko 21:00etatik aurrera, Irakurle Txokoak antolatutako bertso afari literarioa izango da.

Ane Labaka herritarra, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga bertsolariak Danele Sarrigarteren proposatutako gaiei aurre egin beharko diete. Hauek literatura izango dute oinarri. Afariko txartelak Jalgi eta Ilargin salgai daude otsailaren 24a asteazkena arte. Txartelen prezioa 15 eurotako da langabetu eta ikasleentzat; 20 euro ordaindu behar dituzte gainontzekoek.

BIYAK BAT ELKARTEA

Memoria ikastaroa

Matia zentroak Memoria ikastaroa antolatuko du Biyak Bat erretiratuen elkartearen bitartean. Saioak asteartean izango dira, 16:30etik 18:00etara.

Ikastaroa asteartean hasi zen, baina elkarteko kideek aipatu dutenez kurtsoan zehar ere izena eman daiteke.

Beraz, oraindik izena eman nahi dutenek aukera dute, elkarteko bulegora astelehenean ostiralera 10:30etik 12:30era bitartean hurbilduz gero.



Landaberri ikastolaren lehen urratsak Aizpurua-Enea etxean eman ziren. A.E.

Landaberri ikastolaren 50. urteurrenerako proposamenak biltzen

Landaberri ikastola sortu zela aurreko 50. urteurrena ospatuko da.

Hori dela eta, urteurrena prestatzeko osatu den batzordea datorren ostegunean, otsailak 25ean arratsaldeko seieta Landaberri-Garaikoe-txea eraikinean bilduko da.

Batzordeak bertako partaide izan diren guraso, ikasle, irakasle edo beraien iradoki-

zunak eman nahi dituzten herritar edo eragileei ere bilerara gonbita egiten die.

Helburua, 50. urteurrena ospatzeko ideiak eta proposamenak biltzea izango da.

Bilera honetara hurbildu ezin direnek ere haien ekarpenak egiteko aukera dute honako helbide elektronikoan: landaberri50@gmail.com

Ipuinak eta eskulanak Amaraun klubean

Txikienek aisialdi ekintza ezberdinak egin dituzte ludotekan

Mugimendu ugari egon da Amaraun klubean aste honetan. Izan ere, Lasarte-Oriako txikiei zuzendutako zenbait ekintza egin dituzte. Asteartean ipuin kontalarien istorioekin gozatu zuten, eta asteazken eta ostegunetan HH5 eta LH2 bitarteko haurrek tailer berri bati ekin zioten; eskuak eta horien erabilera ditu ardatz. Martxoaren bitartean luzatuko da, eta talde bakoitza astero bilduko da eskuekin zerikusia duten ekintza ezberdinak egiteko eta gaitasunak trebatzeko asmotan.

TXINTXARRI

Ekintza ezberdinekin gozatu dute Amaraun klubeko txikiek aste honetan. Ipuin kontalariaren bisita jaso zuten asteartean, eta eskulan saioak egin zituzten asteazken eta ostegunetan.

Naturako elementuak jorratu dituzte ipuinetan. Ilargiari buruzko kontakizunetan haizea izan dute hizpide, eta hurrengo saioetan itsasoari eta lurriari buruz arituko dira.

Ipuina amaitzean, ekintza osagarriak egin dituzte entzundako kontakizunen inguruan. Besteak beste, antzerkiak, masajeak eta eskulanak.

Eskuak erabiliz

Asteazkenean eta ostegunetan HH5 eta LH2 arteko haurrek tailer berria hasi dute aste honetan. Eskuen erabileran trebatzea du helburu.

Egingo dituzten ekintzak ez dira ohiko eskulanetara mugatuko.

Lehenengo saioan, aste honetan alegia, esku jolasak eta masajeak landu dituzte.

Material birziklatuarekin osatutako txotxongiloak egingo dituzte hurrengoan.

Pasta moldeatu eta margotuko dute hirugarren eta laugarren saioetan. Azkenekoan, berriz, zeinu hizkuntza landuko dute.

Ondo pasatzeaz gain, eskuekin duten trebezian eta gaitasunetan sakonduko dute astean behin. Helburua "eskuak egin dezaketen guztiaz" konturatzea da aipatu dute antolatzaileek.

Tailerrak erantzun egokia jaso du. Izan ere, bai asteazkenetako baita ostegunetako saioak ere betetzear egon dira, eta oso plaza gutxi geratu dira libre. Gainera txikiak "oso gustora" aritu direla



Masajeak egin dizkiote elkarri eskuak lantzeko tailerrean.

azpimarratu dute antolatzaileek.

Datozen saioak

Martxoaren bueltatuko da ipuin kontalaria. 15ean, arratsaldeko 17:30etan, naturako beste elementu bat jorratuko dute Amaraun Ludotekan.

Apirilean beste saio bat egingo asmoa ere erakutsi dute antolatzaileek. Halere, data zehaztu gabe dago oraindik.

Hilabeteko iraupena izango du, aldiz, eskuak trebatzeko tailerrak. Hau da, martxoaren 17ra eta 18ra arte arituko dira asteazken eta ostegunero.



Ilargiari buruzko ipuina entzun zuten asteartean.

Errigoraren olio kanpaina hastear da

Errigora ekimenak aurtenera ere oliba olio birjinaren kanpaina jarri du martxan. Errigorak martxan duen 'Nafar eskualdeko uzta eskutik eskura' ekimenaren baitan dago kokatua.

'Eskutik eskura' Nafarroa hegoaldeko produktuak eguneroko kontsumo ohituren eramateko proposamena da. Errigorako lagunek adierazten duten moduan, kontsumo eredu aldatzeko gonbita da eta kontsumitzaile arduratsuak herriz herri elkartzeko saiakera.

Nafarroa hegoaldeko ekoizleei babes emateko era bat ere bada.

Iazko ikasturtean Nafarroa eta Euskal Herriko 50 herritan egin zuten saiakera, eta Cascanteko 'La casa del aceite' eta Ablitas kooperatiba ekoiztutako 45.000 litro olio banatu ziren.

2014an jarri zen martxan lehenengoz aipatutako egitasmoa. Orduko horretan errota

bakar batek ekoiztutako oliba jarri zuen salgai Errigorak. Pasa den urtean bikoiztu egin zuen hornitzaile kopurua, eta aurtengoan berriro ere bikoiztu: denera lauk hartuko dute parte.

Lasarte-Oria ere bat

Gure herriak ere ekimen honekin bat egin zuen eta 310 bidoi eskatu ziren; 91 ekologikoak izan ziren eta gainontzekoak konbentzionalak.

Aurtengo prezioak hauek dira: 32 euro balio du olio ekologikoak, eta 22,50 konbentzionalak. Bidaien edukiera ez da aldatu: bost litrokoak dira biak.

Eskaerak egiteko epea gaur ireki eta martxoaren 2ra arte luzatuko da.

Oliba olio eskaera egin nahi duenak *errigora.eus* orrialdean edo herriko hainbat lekuetan egin ahalko du: Ttakun kultur elkarte, Muntteri-AEK euskaltegia edo



Iaz Errigora ekimenari 1.500 litro erosi zizkioten Lasarte-Oriako herritarrek.

LAB sindikatuan. Xumela koruak ere eskaerak jasoko ditu.

Eskaerak jaso

Lasarte-Oriako Errigorako taldeak adierazi duenez, herritarrek Goikale 8 zenbakian,

Otaegi zapateria ohia zenean jaso ahalko dituzte eskaerak.

Bidoiak jasotzeko egunak eta ordutegiak honakoak izango dira: martxoak 15a, asteartea, 16:00etatik 19:00etara eta martxoak 16a, asteazkena, 11:00etatik

13:00era eta 16:00etatik 19:00etara.

Errigorako lagunek herritarrek gonbidatzen dituzte ekimen honetan parte hartzea eta maiatzean kontserba loteen kanpaina ere martxan jarriko dela aurreratu dute.



Egungo alderdietako ordezkariak udalerrriaren eraketa akta irakurri zuten.



Eraketa bilkura egin zen Brigitarren komentuan meza ospatu zuten. TXEMA VALLÉS

30 urte bete ditu Lasarte-Oriako udalerrriak

Hainbat ekitaldi egin ziren astelehenean eraketa eguna gogorarazteko

Lasarte-Oria udalerrri izendatu zutenetik 30 urte bete berri dira hilaren 15ean. Hori dela eta, astelehenean gogora ekarri zen Udalaren lehen udalbatzarra. Baina beste ekin-tza batzuk ere izan ziren.

TXINTXARRI

1 1:00etan meza santua ospatu zuten Brigitarren komentuan, eta atzoko zein gaurko hainbat zinegotzi gerturatu ziren bertara. Udalaren eraketa bilkura bertan egin zuten 1986an eta, beraz, kaperari omenalditxo egiteko parada ere izan zuten.

Ondoren, eguerdian, Lasarte-Oriako lehenengo akta irakurri zuten Udalbatzar aretoan.

Egungo PSE-EEko, EH Bilduko, Lasarte-Oriak Ahal Du-ko eta EAJko ordezkariak izan ziren bertan.

Haien izenean Jesus Maria Zaballosek, Pablo Barriok, David

Aresek eta Estitxu Alkorkak irakurri zuten testua, orduko bozera-maileen hitzak gogora ekarri.

Halere, ez ziren bakarrik egon Udalbatzar aretoan. Lehenengo legealdi hartan zinegotzi izandako batzuk gertutik jarraitu zuten ekitaldia, egun hura gogora ekartzen.

Irakurketa saioa amaitzean, alkateak Lasarte-Oriako banderara altxa zuen Udaletxe zaharreko balkoian. Egunduan osoan zehar hagatik eskegita egon zen, urtemugaren omenez.

Berataratutakoek, egungo eta atzoko zinegotziek, argazki bateratua atera zuten gero.

Umore onean, Udal hasiberriko zenbait kontu eta oroitza-

pen eduki zituzten hizpide ekitaldia bukatzean.

Larunbatetik

Larunbatean hasi ziren 30. urteurrena omentzeko ekitaldiak. Manuel Lekuona kultur etxean Julian Sagardiak bildutako argazkien erakusketa egin zuten, Zero Sette Akordeo Orkestrak lagunduta.

Ekitaldiaren aurkezpean, alkate Jesus Maria Zaballosek gogoratu zuen Lasarte-Oriak udalerrri gisa 30 urte betetzen baditu ere, gure herriak gehiago dituela.

1986aren aurretik egindako saiakerak ere gogoan izan zituen eta urte hauetan lanean aritutako politikariei eskerrak eman zizkien.

Gerturatutako herritarrek emozioz ikusi zituzten proiektatutako bideo eta argazkiak.



Jesus Maria Zaballos alkateak bandera altxa zuen urteurrena omentzeko.

Itsaspeko Zinema Zikloa, aurrera

Lehenengo asteko astelehenean Itsaspeko Zinemaren Zikloari hasiera eman zitzaion Manuel Lekuona kultur etxean. Astelehen honetan, berriz, bigarren jardunaldia egin zuten leku berean. Guztira, lau bideo ikusi zituzten bertaratutakoek. Horien artean, euskarazko "Ruta Molucas".

Umorea itsasoan

Manuel Gil-en "El Mero Calimero" film laburra proiektatu zuten lehenengo. Gironako Medas Uharteetan filmatutako istorio surrealista da. Hiru erretiratuek, bertan ehundaka aldiz urpekaritzan aritu ostean, arrain eta urpeko animaliekin elkar eragitea posible dela erakusten dute.

Istorioko umoretsua da, batez ere. Gizaki eta arrainen arteko zentzu gehiegirik

gabeko elkarrizketa barregarriak azaltzen zaizkigu, eta bertaratutako herritarrek ongi pasatu zuten proiektioarekin.

Irla urdina

Kosta Arrokatutik Kanariar Uharteetara egin zuten jauzi, ondoren. Rafa Herreroren "La Isla Azul"-ek La Palma irla du ardatz. Jatorri bolkanikoa du, eta bere sorrera eta bilakaera geografikoa eta fauna azaltzen ditu dokumental motz honek.

Besteak beste, bertako sumendi pasabideetan soilik bizi diren otarrain "margotuen" irudi ikusgarriekin gozatu zuten ikusleek.

Indonesiako uharriak

Euskaraz proiektatu zuten "Ruta Molucas". Indonesiako Molucas Uharteetatik Lembah-ko itsasarteko arrezife arteko



"El Mero Calimero" filmeko irudiak ikusten Manuel Lekuona kultur etxean.

bidaiaren grabazioa da. Sulawesi Uharteetako uharriak biodibertsitatean antzak dira oso, eta irudi ikusgarriak ditu filmak.

Asiako hego-ekialdeko ibilbide horiek "espezien bideoak" bezala ezagutzen ziren XV eta XVI. mendeetan. Piperbeltza eta intxaur mus-

katuaren garraioan garrantzia handia zuten ur bideoak ziren. Gaur egun, ur azpian dago ikuskizuna, "urpeko paradisu" bezala baitute urpekaritzan aritzen diren askok.

Cousteau-ren urratsei jarraituz

Egungo urpekaritza ezin daiteke ulertu Jacques Yves Cou-

steau frantziarraren ekarpenak kontuan hartu gabe. Hark asmatu zituen 40ko hamarkadan gaur egun, oraindik, erabiltzen diren "birika" edo oxigeno doitzailak.

Mexikoko Cozumel Uharteetako maitemindu zuten Cousteau. Karlos Simon zinemagile madrildarraren "Cozumel" filmak bertako paisaietatik egindako bidaia erakusten digu.

Azken saioa, datorren astelehenean

Hilaren 22an, hurrengo asteko astelehenean, amaituko da Nazioarteko Itsaspeko Zinemaren Zikloa Lasarte-Orian. Bi film proiektatu dituzte. Lehenena "Liquid Mirror" izeneko musika bideo motza. Ondoren, "Uharriak, bizitza-oasia" film luzea. Korral-Uharriak izango dira dokumentalaren ardatza.

LABURRAK.-

Buruntzaldea IKTko gaztetxoak ederki Udal Kiroldegian jokatuako sailkapen probetan

Igerilari benjamin eta alebinez lepo bete zen Lasarte-Oriako kiroldegia pasa den asteburuan. Bertan aritu ziren baita ere Buruntzaldea IKT taldeko hainbat igerilari, maila oso ona emanez. Gogotsu aritu ziren denak igerilekuan, hilaren 28an Azpeitian jokatu diren finaletarako sailkatzeko helburuarekin. 50 metroko distantziako hainbat probatan hartu zuten parte: bizkar estiloa, bularra, librea, tximeleta... eta baita 4x50 errelebo mistoan ere. Azken horretan bigarren postua eskuratu zuten Buruntzaldea IKTko alebinek, 2'05"21eko denbora eginda.

Sailkapen orokorrak argitaratu arte itxaron beharko dute gazte-txoek, Azpeitian ariko diren ala ez jakiteko.

Arteaga II.ak eta Imazek lehen puntua eskuratu dute Promozioko binakako txapelketan

Ezin hobeto ekin diote Promozioko binakako txapelketari Arteaga II.ak eta Ander Imazek. Tainta eta Galarza nafarren aurka jokatu zuten iragan larunbatean, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Bikote gipuzkoar gazteak irabazi zuen, 22-15. Arteagaren aburuz, norgehiagoka irabaztearen arrazoia izan zen "aurkariak baino pilota gutxiago" galdu zituztela. Era berean, nabarmendu zuen ongi aritu zirela Imaz oiartzuarra eta bera, eta "zenbait tauto on" egin zituztela.

Gaur jokatu du bikote gazteak txapelketako bigarren norgehiagoka, Irungo Uranzu pilotalekuan, 20:30ean. Mendizabal III.a eta Erostarberen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Euskal Ligako seniorrek Michelinen amaituko dute ligako aurreneko fasea, bihar

Liga amaitzeko jardunaldi eskas bat geratzen denean, senior gizonezkoen Euskal Ligako Lavie-ZRT Beltzak taldea hirugarren postuan da sailkapenean. Michelinen jokatu dute lehen faseko azkeneko norgehiagoka, bihar, Zaisa Irun RTren kontra. 14:15ean hasiko da partida. Amurrio azken sailkatuaren aurka jokatu zuten iragan igandean. Partidaren jaun eta jabe izan ziren herritarrak pasa den igandean, hasi eta buka: 0-47 irabazi zuten azkenean. Minutuak izan zituzten Julen Aristorena, Beñat Arroyo, David Vega, Xabi Prieto eta Andoni Amonarriz herritarrak.

Asteburuko partidak honako hauek dira: Babyauto Zarautz - El Salvador B (Ohorezko B maila, bihar 16:00etan Zarauzko Asti zelaian), Lavie ZRT-Beltzak - Gaztedi RT (16 urtez azpikoak, bihar 11:00etan Astin) eta Lavie ZRT-Beltzak - Zaisa Irun (14 urtez azpikoak, bihar 13:15ean Michelinen).



ARETO-FUTBOLA.-

ISU Leihoak, hirugarren postuan

Jokatuako azken hiru norgehiagokak irabazi ditu taldeak

Gipuzkoako 1go mailako sailkapeneko hirugarren postuan da ISU Leihoak taldea. 31 puntu dituzte Eneko Molinaren jokalariek; azkeneko bederatzia jarraian zakuratu dituzte. Irudek Barrantol azken sailkatuaren kontra neurtuko ditu gaur indarrak, 21:30ean, Tolosako Eskolapioak kantxan.



Bolada onean da ISU Leihoak taldea; azkeneko hiru partiduak irabazi ditu jarraian.

TXINTXARRI

ISU Leihoak harreman berezia dauka 3 zenbakiarekin. Hona hemen zergatia: azkeneko hiru norgehiagokak jarraian irabazita, Gipuzkoako 1go mailako hirugarren postuan da orain Eneko Molinaren taldea. Ez da hor bukatzen: Lauburu KE Ibarra taldea 3-1 azpiratuta zakuratu zituen pasa den ostiralean jokoan zeuden hiru puntuak. 31 ditu orain.

Berebizikoa zen pasa den asteko partida herriko taldearentzat. Kantxara irten aurretik 28na puntu zituzten bi taldeek; irabazten zuenak aurrerapauso handia emango zuen, goreneko postuetan mantentzeko eta, zergatik ez, sailkapeneko lehen bi taldeengana hurbiltzeko.

Lehenengo zatiko erritmoa bizia izan zen oso. Azkar batean mugitu zuten baloia bi

taldeek alde batetik bestera, baina etxekoan izan ziren aukera garbienak. Insistentziak saria dakar askotan, eta horrela izan zen Molinaren jokalarientzat: kontraeraso baten ostean, Roberrek maisuki sartu zuen gola.

Gipuzkoako 1go mailan ezin da minutu bakar batez erlaxatu ordea, arerioak edozein abagune baliatu baitezake gola sartzeko. Horrela egin zuen kanpoko taldeak, bana-koa ezarriz markagailuan.

ISU nagusi bigarren zatian

Lehenengoan egin bezala, ISU Leihoak jaun eta jabe izan zen bigarren zatian ere. Abaguneak sortzen jarraitu zuen, eta horietako batean Unai Ituartek 2-1ekoa ezarri zuen markagailuan.

Areto-futboleant, beste zenbait diziplinatan bezala,

bi modu daude, markagailuan aurretik zoazenean, hori baliatu eta hiru puntuak eskuratzeko: defentsa-lana ongi egitera mugatu eta sufritu, edo lasaitasunaren golaren bila abiatu. Bigarren bidea aukeratu zuten etxekoek, eta asmatu zuten; Arkaitz Arroyok 3-1ekoa sartu zuen jokalaria eta zale lasarteoriarren gozamenerako.

Hiru puntu horiek poltsikoan dituela, hirugarren postuan da Eneko Molinaren taldea. Bolada onari jarraipena emateko aukera polita dute gaur gauekoa, Irudek Barrantol azken sailkatuaren aurka neurtuko baitituzte indarrak. Partidak irabazitaz ezin dira eman inoiz, baina orain arteko joko-maila mantenduz gero, balantza euren aldera desorekatzeko aukera gehiago izango ditu taldeak.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 20

Karla Lekuona, Oiartzun, 10:30ean
Oiartzun KE - Ostadar SKT
Kadeteen Ohorezko maila,
20. jardunaldia.

Michelin, 11:30ean

Ostadar SKT - Arrasate CD
Infantil txikiak, Errendimendua,
10. jardunaldia.

Michelin, 15:35ean

Ostadar SKT - Oiartzun KE
Jubenilen Ohorezko maila,
20. jardunaldia.

Michelin, 17:20ean

Ostadar SKT - Euskalduna SD
Erregionalen Ohorezko maila,
23. jardunaldia.

Plazeta, Lezo, 19:30ean

Allerru KJKE - Ostadar SKT
Emakumezkoen Lurralde maila,
igoera fasea, 8. jardunaldia.

Igandea 21

Arraitzan, Billabona, 11:00etan
Billabona KE - Ostadar SKT
Kadeteen 1go maila, Kopa,
6. jardunaldia.

Michelin, 11:45ean

Ostadar SKT - Zestoa KB
Jubenilen I. maila, igoera fasea,
8. jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 19

Beotibar pilotalekua, Tolosa, 19:00etan
Tolosa - Intza KE
2. urteko alebinak, Gipuzkoako
txapelketa.

Larunbata 20

Michelingo pilotalekua, 16:00etan
1go mailako jubenilek, 2. mailako
seniorrek eta 1go mailako seniorrek
jokatu dute, hurrenez hurren.
Udaberriko txapelketan murgilduta
daude hirurak.

ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol txapelketa

Ostirala 19

Michelingo kirol gunea, 19:45ean
Kattagorri Insausti - Txindoki
Michelingo kirol gunea, 20:45ean
El Punto - Txoko

Udal Kiroldegia, 20:45ean

Makax CD - Cecilia Kebab Ostadar
Gipuzkoako II. maila,
18. jardunaldia.

Larunbata 20

Michelingo kirol gunea, 9:15ean
Reformas Lagunak - Urdeneta HK
Michelingo kirol gunea, 10:15ean
Ilargi - Izkiña
Michelingo kirol gunea, 11:15ean
Indaux - TSST
Michelingo kirol gunea, 12:15ean
Viña del Mar - Also

Udal Kiroldegia, 11:00etan

Lasarte Kafe Bar - Anoeta FT
Gipuzkoako jubenilak, 13. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar Antonio - Egintza CD
3. Nazional maila, 17. jardunaldia.

SASKIBALOA

Ostirala 19

Majori kiroldegia, Ordizia, 20:00etan
Ordizia KE - Ostadar SKT
Senior gizonezkoen 3. probintziala,
bigarren fasea, 6. jardunaldia.

Larunbata 20

Majori kiroldegia, Ordizia, 16:00etan
Ordizia KE - Ostadar SKT
Junior neskek, Euskal Liga,
4. jardunaldia.

Aiete kiroldegia, Donostia, 18:00etan

Atletico SS - Ostadar SKT
Partizipazioko junior neskek,
bigarren fasea, 2. jardunaldia.

Igandea 21

Udal Kiroldegia, 9:30ean
Ostadar SKT - Añorga Saskibaloia

*Partizipazioko kadete neskek,
bigarren fasea, 8. jardunaldia.*

Udal Kiroldegia, 11:30ean

Ostadar SKT - Bera Bera Gros
Errendimenduko kadete neskek,
bigarren fasea, 4. jardunaldia.

IGERIKETA

Larunbata 20/Igandea 21

Ciudad Amaya, Iruñea
Buruntzaldea IKTko igerilariak
Euskal Herriko absolutu mailako
Neguko Txapelketan ariko dira
asteburuan zehar.

ATLETISMOA

Larunbata 20/Igandea 21

Belodromoa, Donostia
LOKEko atleta Yeray Veronizet pista
estaliko Espainiako promesen
txapelketan hartuko du parte. 60
metroetan egingo du lasterka
herritarrak.

— Agenda —

Larunbata, 17:00etan, Manuel Lekuona Kultur etxea



Klasikoak berraztertzen

Glu Glu ekoizpen taldearen eskutik, 'Txanogorritxo' ipuin klasikoaren antzerkirako moldaketaz gozatzeko aukera izango da. Gaur eguneratutako testu, forma, irudi eta edukia ditu lanak. Azpimarratzekoa da ukitu musikalak; dantzek eta abestiek Txanogorritxo lagunduko dute basoko bide ahaztezin, arriskutsu eta dibertigarri honetan. Izan ere, jolastea ezinbestekoa da, baina beti ere begiak erne eduki behar dira. Sarrera, 3,80 euro.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena 24, 19:00etan

'Errauste-planta eta osasuna' hitzaldia eskainiko dute Iñigo Suberbiolak, Maialen Berridik eta Joxerra Furundarenak, Osasuna eta Errausketa Ikerketako Taldeko kideek. Aire Garbia plataformak antolatua.

Andoain

Piano Jaialdia

BASTERO KULTURGUNEA

Larunbata eta igandea

SEIASLE elkarteak Andoaingo Udalaren babesarekin antolatzen duen 11. Piano Jaialdia izango da. Lasarte-Oriako Musika eskolako ikasleak bertan izango dira.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

Okendo zinema taldearen eskutik, 'La novia' filma ikusgai izango da. Ostean, zine foruma egingo da. Sarrera, 5,50 euro.



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'The Snow Queen' marrazki bizidunetako filmaz gozatu ahalko dute etxeko txikiak. Sarrera, 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 19:30ean

Helduentzako zinea atalean, 'La novia' filma ikusgai izango da. Sarrera, 5,50 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Otsailen zehar

Arantza Agirre segurarraren olio lanak ikusgai izango dira. Teknika ezberdinekin margotutako lanak dira erakusketan aurkeztutakoak.

Itsaspeko Zinema Zikloa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 22, 19:30ean

Itsaspeko zinema zikloaren azken

saioan, film labur bat eta 'Arrecifes' film luzea ikusiko dira.

Lasarte-Oriatik mundura

XIRIMIRI ELKARTEA

Asteazkena 24, 19:30ean

Irati, Ane, Ainhoa eta Urđiñek Kubara egindako bidaia azalduko dute argazki diaporama bitartez. Bitartean, merienda kubatarra dastatu ahalko da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 26, 19:00etan

Urte askotan Askapeneko brigadista izandako eta EHUKo irakasle den Luis Ugartek 'Cuba: kokapen historikoa eta gaur egungo egoera' hitzaldia eskainiko du.

Dokumentala

BASTERO KULTURGUNEA

Asteartea 23, 19:00etan

'The Good Son' dokumentala eskainiko dute. Honetan 22 urte dituen Or-en istorio sinestezina kontatzen du. Gurasoei gezurra esanda, Tailandian sexu aldaketa ebakuntza egin eta emakume bezala itzuliko da. Jatorrizko hizkuntzan euskarazko azpitoluekin. Sarrera, 3 euro.

Hernani

Musika

MILAGROSA KAPERA

Igandea, 18:00etan

Hernanin Musik ekimenaren barruan, Maddi Oihenart eta Soka Hots Orkestraren kontzertua. Sarrerak salgai.

— Herritarren txokoa —

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean Otsailaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazena da eta odol falta dago!

Maria Auziliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, otsailaren 24an, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan.

Biyak Bat bidaia

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaia antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuak izena eman beharko dute asteleheneetik ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

Galdutako betaurrekoak

Ikusteko betaurrekoak galdu ditut Sasoeta ibilbideko paseoan, N-1 errepide parekoan edo Plazaola bidean.

Aurkitzen dituenak mesedez jarri harremanetan honako telefono zenbakian, 600 67 78 72 (Axun).

Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jolasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke. Interesa duena jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

Eskutitza

TXINTXARRIren azalpena

Otsailaren 9an, Lasarte-Oriako Udaltzarrak ohiko saioa izan zuen. Horretan besteak beste Elebetz Sor-kuntza eta Eztabaida Askerako Topagunearen aldeko plataformak aurkeztutako mozioa eztabaidatu zen.

Udal Gobernuak bere bozeramailearen eskutik Elebeltzi helarazitako oharazpenaren prozesuaren nondik norakoak eskaini zituen eta azalpenean TXINTXARRI aldizkaria izan zen aipatua behin baino gehiagotan.

Hori dela eta, TXINTXARRI aldizkari-kazetari taldeak eta Ttakun kultur elkarteko zuzendaritzak honako hau adierazi nahi du:

-TXINTXARRI herriko eragile guztien informazioa argitaratzen du uste badu hori interesekoa dela Lasarte-Oriako herritarrentzat. Kazetaritza irizpideak ditugu ipar eta baita ere gure aldizkariaren funtzio soziala.

-TXINTXARRI gezurtatzen du berak eman dionik inolako izenik Udalarri Elebeltz auziaren baitan.

-TXINTXARRI eskatzen die udal ordezkariari ez sartzeko aldizkaria Udala eta Elebetzen artean egon daitekeen gatazkan.

Txintzarriko kazetariak eta Ttakun Kultur elkarteko zuzendaritza

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48
txintzarri@txintzarri.eus

Ardo dastaketa jardunaldiak

Otsailaren 23 eta 24ean Viña del Mar, Arkupe, Lasarte eta Buenetxean izango dira

Aterpea Merkatarien elkarteko ostalaritza arloak Udala-
ren laguntzaz lehenengoz ardo dastaketa jardunaldiak
antolatu ditu. Hurrengo astearte eta asteazkenean izango
dira jardunaldiak eta Nafarroako edo Arabar Errioxako
ardoak dastatuko dituzte ekintza honetan parte hartzen
duten herritarrek.

TXINTXARRI

Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakaria, Arkupe, Buenetxea, Lasarte eta Viña del Mar tabernetako ordezkariak eta Beatriz Juez Merkataritza batzordeburua izan ziren atzo arratsaldean ardo dastaketa berri eman zutenak. Ekintza hau Lasarte-Oria Gastronomikoa ekimenaren baitan antolatu da.

Ramon Ormazabalek azaldu zituen ekimen honen nondik norakoak.

Aterpeko ostalaritza arloak egiten duen lehen ekintza dela azpimarratu zuen lehendakariak eta eskerak eman zizkien ekintzan parte hartzen duten elkarteko lau establezimenduei; Viña del Mar, Lasarte, Buenetxea eta Arkupe tabernei.

Bi egun

Ardo dastaketa jardunaldiak otsailaren 23a astearte eta 24a asteazkena izango dira, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Egun bakoitzean bi establezimenduetan dastatu ahalgo dira ardoak.

Lehen dastaketa honetan Nafarroako eta Araba Errioxa-

ko upeltegietako ardoek parte hartuko dute.

Honela, agerraldian azaldu legez, otsailaren 23an, Viña del Mar taberna Biasteriko Gomez Segura upeltegiko ardoak dastatuko da eta Buenetxean, berriz, Nafarroako Lerin herriko Alconde upeltegikoa. Otsailaren 24an, Arkupen Oliteko Marco Real upeltegiko ardoak izango dira eta Lasarte tabernan, Biasteriko Launa upeltegikoa.

Upeltegiak

Ramon Ormazabalek upeltegien ibilbidearen azalpen txiki bat ere eskaini zuen aurkezpenean.

Gomez Segura Biasterin dagoen upeltegia da, 1948an sortu zen eta gaur egun familia honetako 3. belaunaldia ari da bertan lanean. Biasterin bertan dituzte mahastiak.

Alconde upeltegia Nafarroako Lerin herrian dago kokatua. 1956an upeltegi txiak zituzten ardandegidunek bat egin zuten kalitate handiko ardo bat ekoiztu ahal zutelaren sinetsirik. Bere jabetzako 510 hektarea mahasti ditu Erribera aldean.

Marco Real upeldegia 1989an sortu zen eta Oliten



Aterpeko lehendakaria, ardo dastaketan parte hartuko duten tabernetako kideak eta udal ordezkaria aurkezpenean.

du bere egoitza. Bi milioi kilo mahats ekoizti ditzake. Ekipamendu moderno eta eguneratua du, bere ardo gazte, ardo ondua eta erretserbakoak ekoizteko. 5.000 kupel baino gehiago ditu haritz amerikarrarekin edo frantsesarekin egindakoak dira eta sei urte baino gutxiago dute.

Azkenik, Biasteriko Launa upeltegiko ardoak ere dastatu ahalgo dira. Upeltegia 1978an eratu zen Arabako Villabuena herrian, baina familiak zazpi belaunaldiko esperientzia zuen ardoak ekoiztearen munduan. Esperientzia eta instalakuntza modernoek kalitateko ardo gazteak ahalbideratzen die. 2006an familiako bederatzigarren belaunaldiak

proiektu berri bati hasiera ematen dio Biasterin upeltegi berria martxan jarrita.

Izena ematea

Lehen ardo dastaketa honetan parte hartu nahi duten herritarrek tabernetan bertan izena eman behar dute eta bost euro ordaindu beharko dituzte. Partehartzaile kopurua mugatua izango dela ere jakitera eman zuten.

Tabernek pintxoak edo jakiak jarriko dituzte dastaketari laguntzeko.

Lasarte-Oria Gastronomikoa

Beatriz Juez Merkataritza batzorde buruak eskerrak eman nahi izan dizkio Aterpea eta lau tabernei ekintza

hori antolatu eta horretan parte hartzeagatik.

Era berean, ardo-dastaketaren alde hezitzailea azpimarratu nahi izan zuen: "Lasarte-Oria herri Gastronomikoa izatea dugu helburu eta ikastaro honen bitartez gure ostalariek bikaintasunaren bidean pauso bat ematea espero dugu".

Lasarte-Oria Gastronomikoa Lasarte-Oriako Udala eta Aterpea Merkataritza elkarteak batera martxan jarritako ekimena dugu.

Aterpea Merkataritza elkarteko lagunek, lau ostalariek eta Lasarte-Oriako Udalak herritarrek gonbidatzen ditu ekintza horretan parte hartzera.

Langabezia eta prekarietatearen aurka borrokan

LAB sindikatuak Euskal Herrian eta batez ere gure herrian dagoen langabezia eta prekarietatea salatu nahian hainbat mobilizazio aurrekusi ditu ekainera bitartean.

Astelehen arratsaldean LAB sindikatuko kideek 'Prekarietatea, paro... STOP. Alternatiba Independentzia' lemapean elkarretaratzea egin zuten Lasarte-Oriako udal zahar aurrean.

Egoera latza

Gure herriak pairatzen duen langabezia tasa eta prekarietateaz ohartarazi nahi du sindikatuak.

"Badirudi, langabezia eta prekarietatea euskal herritarrok ekidin ezin ditugun fenomeno naturalak direla. Baina ez da hala. Estatu espainiar-



LAB sindikatuko kideek gure herrian dagoen langabezia eta prekarietatea salatzen hainbat ekintza egingo dituzte hurrengo hilabeteetan.

rrak, botere ekonomiko nahiz patronalaren mesedetan inposatzen dituen politiken ondorio zuzena dira eta honi

Eusko Jaurlaritzaren babes arduragabea gehitu behar zaio."

Honetaz gain, sindikatuak

egoera hau gainditzeko duen bidea ere aldarrikatuko du: 1.200 euroko gutxieneko soldata, 35 orduko lan astea eta

lan banaketa eta diruzalekeriaren aurrean langileon osasunaren defentsa.

Independentzia bidea

Hori guztia lortzeko, burujabetasun ekonomiko behar dela ere argi du sindikatuak eta horregatik, alternatiba independentzia dela jakinaraziko du.

"Burujabetza ekonomikoki gabe alternatiba ez da posible. Estatu espainiarrarekin hautsi beharra dago, horrek ADN ustel eta antidemokratikoa baitu. Pobrezia eta murrizketak soilik eskaini ditzake lan munduan nahiz gizarte osoan; beraz, gure eetorkizunaren jabe izan eta herritarren ongizatea bermatuko duen eraikitzeke uneda."